

ttipi ttapa


395



Sunbillako tandema bidean lagun

03

Sunbillako Gari Larraburu eta Joana Hernandorena *tandemean* ibiltzen dira: «Tandema hemen arraroa da eta denak begira gelditzen zaizkigu» diote.



Laxoa txapelketan aurten Hondarribia

25

Aste hondar honetan abiatu da Baztan-Errekako XXVI. laxoa txapelketa, hamabi talderekin. Tartean, lehen aldiz, Hondarribiako taldea ari da.

2005eko apirilaren 7a • XXV. urtea



04 ELIZONDOKO ZAHAR ETXEA

Tarifak igo behar izan dituzte dirulaguntzak eskuratzeko

MUEBLES AMETS



Iarunbat
arratsaldetan
irekia

4000 m² erakusketa

**Sarrera
BERA**tik da

*Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga*

31789 LESAKA

*Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE
WEB ORRIA
www.mueblesamets.com



KULTURKARI

PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

PUBLIZITATE AGENTZIA
Iragarkiak irratia, telebista
eta egunkarietan.

Publizitate kanpainen
antolaketa eta
gestioa.

**DISEINU ETA PUBLIZITATEAN,
ZERBITZU INTEGRALA**

Andutzeta 12
31760 ETXALAR
(0034) 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net



ALDIZKARIAK

BUZOIRATZEKOAK

FOILETOAK

TXARTELAK

LOGOTIPOAK

FAKTURAK

KARTELAK

LIBURUAK

...

DATUAK...

- Duela zazpi urte hasi ziren Sunbillako Gari Larraburu eta Joana Hernandezena tandemean ibiltzen.
- Joana bizikletarekin bakarrik ausartzen ez zela eta probatu zuten tandem. Geroztik larunbat goiza edo arratsaldean pasatzeko aitzakia bihurtu da bientzat kasik astebururo.
- Eskualdean ibiltzen dira normalki baina etxetik urrunago, Bilbon, Iruñean, Donostian, Santanderren eta Italian ibiltak dira.



Gari LARRABURU-Joana HERNANDEZENA Tandem ibiltarlarak

ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

«Tandema arraroa da hemen eta denak begira gelditzen zaizkigu»

Joseba OLAGARAI

Zergatik tandem eta ez bizikleta Joana?

Ni Garirekin hasi nitzenean ez nekien bizikletan ibiltzen eta ez nintzen ausartzen bizikleta bakarrik aleratzera. Bere lagun batek tandem bat erakutsi zigun eta proba egin ondok aunitz gustatu zitzaigun. Egun hartan hasi eta orain arte ez dugu utzi. Duela zazpi urte izan zen hori.

Zein desberdintasun du tandemak bizikletarekin alderatuz?

Ez diozula inori esperatu behar. Gibeletakoak egun txarra baldin badu lasaigo joaten ahal da eta aitzinekoak tiratu. Edo aldrebes. Tandemarekin garrantzitsua da biak elkarrekin joatea. Horrela, biek sufritzen dugu eta biek entrenatzen dugu berdin.

Anekdotarik ez zaizue faltatuko... Bai, behin Guardia Zibilek harrapatu ninduten (Garik) semaforo bat saltatzen. Segituan geldiarazi ninduten. Zertan nonbilen galdetu eta serie bat egiten ari nintzela asmatu nuen momentuan. Euren "pues continue con la serie" erran eta Iruritako maldan sekulako abiaduran joan behar izan

«Gure helburua da heldu den ekainean "Quebrantahuesos" izeneko proba egitea.

200 kilometro dira eta hiru portu, baina saiatuko gara»

nuen, serie bat egiten ari banintz bezala, eurek gibeletik nituela. Seguraski irri aderrak egiten zituzten nira kontura!

Non barna ibili zarete tandemean? Lekuz aunitzetan. Bilbon, Iruñean, Donostian, Santanderren, Italian... Italiakoa gainera berexia izan zen. Autokarabana batean joan eta bi egunaz ibili ginen han tandemean. Hala ere, Italia hagitz arriskutsua da tandemean edo bizikletan ibiltzeko. Autoak hagitz abudo ibiltzen dira eta ez dute kontrolrik, debekatua dagoen lekuan aitzintzen dute... Erroman bertan ere errepedea gurutzatzea ezinezkoa da. Hemen inguruan aunitzez hobekiago eta lasaigo ibiltzen gara. **Jendeak zer erraten dizue bide baxterretik pasatzen ikusita?**

Egia erran tandemak hagitz arraroa da

hemen inguruan eta joaten garen tokiara joanda, mundu guztia begira gelditzen zaigu. Aunitzek oihukatzen digute "behik, gibeletakoak ez dizula erreleborik ematen!"

Heldu den ekainean egingen da "Quebrantahuesos" proba gogor eta ezaguna. Parte hartzeko intenziorik baduzue?

Bai, intenzioa bai. Lehengo urtean Sunbillako lagun batekin egin nuen (Garik) eta ikaragarri gustatu zitzaigun. Aurtien Joanarekin egiten saiatuko naiz, tandemarekin. Kalkulatzen dugu 10 orduz egiten ahal dugula. 200 kilometro ditu eta hiru portu pasatu behar dira. Hagitz gogorra da baina saiatuko gara. Hori da gure helburua. Hala ere ez dugu agobiatu nahi, kilometro aunitz baita eta ez dakigulako seguru egiten ahaliko ote dugun.

Nora egingen zenukete gustura bidaia bat tandemean?

Gustatuko litzaiguke Valentziatik Andaluziara, kostaz, tandemean joatea. Goizez ahal bezainbertze ibili eta arratsaldean hondartzara! Ez litzateke plan txarra izanen.



ARGAZKIA: TOTO ITURZAETA

Arratsaldetan denborapasa egiteko, bingoan jostaten dute Elizondoko Zahar-Etxean.

GOBERNUKO DIRULAGUNTZA ESKURATZEKO NAHITAEZKOA ZEN

Elizondoko Zahar-Etxeko tarifak %40 eta %80 artean igo dira aurten

Elizondoko Fco. Joaquin de Iriarte Zahar-Etxeko tarifak %40 eta %80a artean garestitu dira, zahar etxea zuzentzen duen Gobernu Batzordeak berriki hartutako erabakiaren arabera. Gobernu Batzordea Balleko Udako hiru ordezkariak (Virginia Aleman alkateak, eta UPNko Isabel Bidart eta EAko Santiago Aldako zinegotziak), lau herritarrek eta Elizondoko eta Gartzaingo apozek osutzen dute. Azken hauek, Fco. Joaquin de Iriarteren testamentuaren lekukoak dira.

Aitor AROTZENA

«Francisco Joaquin de Iriarte Zahar-Etxeak premia handiko zenbait moldaketa lan egin behar ditu eta Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate Departamentutik dirulaguntza eman aitzinetik, berezko diru-sarreraz guztiak ahal bezainbat handitzea eskatu dute». Horrela azaldu dute tarifaren igoera Zahar Etxeko Gobernu Batzordeko kideek. Horretarako, Gobernuko Ongizate Departamentuak ezartzen dituen tarifetara egokitu behar izan du Elizondoko erresidentziak.

Inmaculada Urtasun, Zahar-Etxeko gerenteak onartu duenez, «tarifak arront desfasetuak geldituak ziren, hori egia da. Tarifa ezberdinak ditugu, bere buruz baliatzeko gai

den edo ez kontuan hartuz, eta logelan bakarrik edo lagun gehiagorekin dagoen kontuan hartuz. Orain, igoeraren ondotik, honeia gelditu dira tarifak: bere buruz baliatzen direnak, logela bakarrean hilean 1.030,10 euro eta logela konpartituan 740,88 euro. Laguntza behar dutenek, logela konpartituan 1.349,10 euro. Hauek ez dute logelan bakarrik egoteko aukerarik».

Igoera erabaki da, ezustea eta polemika pixko bat ere sortu du herrian, baina bere oihartzuna ez da Baztanen gelditu. IU-Ezker Batuko Felix Taberna parlamentariak galdera egin zuen Nafarroako Parlamentuan, igoera honen zergatia eta honi legearen arabera ote den galdetuz.

Momentuz, tarifa igoerak ez omen du izan eraginik erresidentziako bizilagun kopuruan. Gaur egun 137 lagun bizi dira zahar-etxean, urtarrean tarifa berriak ezarri zirenetik bi lagunek baja eman baitute. Inmaculada Urtaun, Fco. Joaquín de Iriarte zahar-etxeako gerenteak aitatu digunez, «*persona bakarra joan da tarifa igoerarengatik, bertzera arrazoi pertsonalengatik joan zen*». Bizilagun gehienak Baztangoak eta inguruko herrietakoak dira eta Iruñeko bi pertsona ere bertan bizi dira. Zahar-Etxean 52 langile ari dira eta Karitatearen Alaben kongregazioko zortzi moja ere bertan daude, lau lanean eta bertze lau erretretuak.

LEGIONELLA ARAUDI BERRIRA EGOKITZEKO LANAK

Francisco Joaquín de Iriarte zahar-etxearen aurtengo aurrekontua 1.469.000 eurokoa da. Gehien bat bizilagunen kuotarekin estaltzen dute aurrekontua. San Anton eguneko errifatik lortzen dena «*gaur egun anekdotikoa baita*» Urtaunaren erranetan. 1980an moldatu zenetik ez da konponketa lan handirik egin egoitzan eta zenbait zerbitzutan hobekuntza lanak premiazkoak dira. Honela, sukaldia lehenbailehen konpondu beharko litzateke eta 180.000 euroko inbertsioa behar da. Horretarako dirulaguntza eskatua da aurtén Nafarroako Gobernuan. Gainera, Inma Urtaunek aitatu digunez, «*legionella araudi berrira egokitzeko lanak preziskoki aurtén egin beharrik ditugu. kalderak eta ur-arrumuladorea aldatu, kalfakzio instalazio berria egin...*»

HISTORIA LUZEA DUEN ZAHAR-ETXEA



Fco. Joaquín de Iriarte Zahar-Etxean karta txapelketak egiten dituzte urtero.

XIX. mendean Baztanek pobreen asiloa zainitzen zuen *Iturralde eta Iriarte Fundazioa* zuen alde batetik eta *Balleko Ospitala eta Miserikordia Etxea* bertetik. Elizondori zegoen Balleko Miserikordia Etxea, Zigan sortutako Bartolomé de Iturraldek XVIII. mendean hondarean Ameriketatik igortako 2.000 Pesoei esker sortu zen. Bere asmoa *la-linidade eskola* sortzea zen, eta hori posible ez balitz, Baztanerako onuragarria zen bertze zerbailetara bideratzea. Eskolak lege aldetiko zailtasunak topatu zituen eta horren ordez, Balleko Juntak Elizondon kaputxinoek izan zuten eraikina erostea erabaki zuen, hain Miserikordia Etxea egiteko. Etxe honek araudia Nafarroako Errege Kontseiluak onartu zuen 1787ko otsailaren 27an.

Ondotik izan ziren gerra ugariak Miserikordia Etxearen diru-iturri nagusia,

heritarren karitatea edo borondatea, itxi egin zuen. «*Nahikoa lan zuen jendeak familia aitzinera ateratzeko!*» XIX. mende erdialdera Etxea berriz antolatzea erabaki zen. Horretarako, heritarren 170.525 pezeta eta Francisco Joaquín de Iriarte apezak utzitako 1.858.000 erreale erabili ziren. 1763an, Francisco Arizkun eta Iturmentako markesa zen Josefina Irigoien bere emazteak, 15 vilon-errealen mila Peso arrunt eman zituzten ospitalerako, Beranduago, 1924an, Maria Machintoak Miserikordiarako 30.000 pezeta utzi zituen bere testamentuan.

XIX. mende bukaerari 90 lagun bizi ziren zahar-etxean eta urteko aurrekontua 20.000 pezetakoa zen. 1980. hamarkadako azken moldaketan ondotik, 132 ohatze zituen zahar etxeak eta geroztik bertze batzuk paratu dira.

Santiago ALDARO Zahar-Etxeko Gobernu Batzordeko kidea



"Tarifak igotzera behartu gaitu Nafarroako Gobernuak"

Zergatik igo dira hainbertze Zahar-Etxeko tarifak?

Kasik tarifak igotzera behartu gaituzte Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate Departamentutik, izan ere dirulaguntzak hartu nahi baldin baditugu, nahitaez prezioak eguneratu behar ditugula erran digute eta beraiek ezarriak dituztenekin parekatu. Egia errateko, prezioak zaharkituak galdituak ziren eta bapatean igo-

era handia izan da. Hobe izan litzateke poliki-poliki igotzea baina...

Erabaki horrek kezka sortu izanen du erabiltzaile eta senideen artean...

Senideak kezkatuak daude, baita gu ere, noski! Inori ez zaio gustatzen horrelako erabakiak hartu behar izatea, baina afera honetan esku eta hankak lotuak ditugu. Tarifak igo zirenean izugarritzko senide-

prozesioa izan genuen, baina gauzak nola ziren argitu eta lasaitu ziren.

Prezioak eguneratu ondotik, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza segurtatu duzue? Hori nahiko gure! Guk eskatu eskatu egin dugu, baina ikusi beharko da zer erantzun ematen diguten Iruñetik. Egia errateko Zahar Etxeak premia handiak ditu, arras zaharkitua gelditu baita. Sukaldia moldatzeko 180.000 euroko aurrekontua dago, gas instalazioa aldatu behar da eta logelak aldatu nahi genituzke.

Lage Gordailua: NA-1324/65
ISSN: 1578-4673
Franko Bursua: 3479
Tirada (Tirage): 6.000

Hipi-ttapa aldizkaria
Anduzesa, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfona: (+34) 948 63 54 56
Faxa: (+34) 948 63 54 57
ttipi-ttapa@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa
Presidentea: Pello Apeztekoa
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoin
Zuzendaria: Aitor Arotzena
Publizitateak: Kukurari, SLU
Administrazioa: Amaia Goia
Berriemakileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Korki Klaber, Pello Zetela, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Elvénika, Koto Inazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetia, Benedito eta Krispin, Angela eta Xabier, Nerea Aizuri, Oskar Txoperena, Joséba Ojagarrak, Nerea Miretorena, Aitor Arotzena, Amaia Odiroizola, Ainhoa Inazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iñaki Kontsumitzaileen Elkartea...
Impelmatagia: Gerta
Erakunde laguntzaileak: Bera, Leitza, Gozueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiako Akelearekin elkarrekin, Bortzinetako Euskara Mankomunitatea, Maierrekako Zerbitzu Mankomunitatea

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	28 €
España	28 €
Ipar Euskal Herria	40 €
Europa	40 €
Amerika	108 €
Baztan, Urdazubi, Maierreka eta Leitza	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Status politikoaren alde, euskal presoak Euskal Herrira

700 euskal herritar baino gehiago dira jadanik, mundu zabaleko kartzela desberdinetan sakabanaturik daudenak. Milaka berriz, atxilotuak, torturatuak, kartzeleratuak eta Euskal Herritik ihesean bizi behar izan dituztenak.

Gatazka hau luzatzeko apustua egin duten bi estatuen aldetik, errepresioa eta zapalkuntza besterik ez da izan. Euskal preso politikoei sakabanaketa eta bakartzea aplikatuz, preso eta beraien senideen eskubide guztiak urratuz eta preso politikoa izaera ukatuz.

Hala ere, Euskal Preso Politikoen Kolektiboa, dispersioari gain hartuz, preso gisa dagozkien eskubideen aldeko defentsan eta batik bat Euskal Herriaren eskubideen defentsan eragile garrantzitsua bilakatu da.

Gaur da eguna gatazka politikoa inoiz baino agerriagoan dagoena eta gaur da eguna, herriak behingoz gatazka hau (eta bide batez bere ondonoak) konpontzeko beharra inoiz baino ozenago aipatzen duena. Gatazkaren konponbidea, euskal herritar guztien hitza eta borondatearen errespetutik etorriko da. Euskal herritar guztiek hitza libreki hartze bidean, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak ere zuzenean parte hartzeko aukera izan dezan, eta era berean gatazka politikoa ondo izanik status politikoa onartu izan dakion hiru hilabetezako borrokaldian ekin diote presoek. Horren aurrean:

1.- Euskal Preso Politikoen Kolektiboa, gailentzeko euskal eragile gisa Euskal Herriaren hitza eta erabakia gauzatzeko bidean zuzenean parte hartzeko duen eskubidea aldarrikatzen dugu.

2.- Parte hartze hori behar den baldintzetan eman dadin, isolamendu eta sakabanaketarekin bukatu eta euskal presoek Euskal Herrian egoteko duten eskubidea gure egiten dugu.

3.- Aldarrikapen horiek gauzatu daitezkeen, martxan den preso borrokaldiarekin bat egiten dugu.

4.- Borrokaldi hau babesteko antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen dugu.

Lesakako Ezker Abertzalea

Euskaldunak guretzat zigorruak

Zaine Rekondo lesakarra atxilotu dute, eta kartzeleratu, eta, lerrook idazten ari garen bitartean jakin dugunez, inkomunikatuta egon den egunetan tratu txarrak jasaten dituela salatzen du. Bertze tortura kasu bat. Idazki hau izenpetzen dugunok, haren lankideak gara Bortzinetako Euskara Mankomunitatean, eta atxilotze honek sorrarazten digun gogoeta argitaratu nahi dugu.

Erran dezagun, lehenik eta behin, Zaineren atxilotzeak euskararekiko eraso ekartzen digula gogora; erasoaren bertze urrats bat. Anitza eta aspaldikoa baita euskara jasaten ari den jazarpena, euskaldunok jasaten ari garen jazarpena. Gure izaera bera ukatzen duen jokaera. Hemezortzigarren eta mhe-

meretzigarren mendeetara joan gabe, Franco-ren diktaduraldiko urte gogorak berritu gabe, hondar urteak ere aski azpimarragarriak dira euskaldunon zapalkuntzan; PPren agintaidokoa batez ere, nahiz eta PSOEren gobernu berriak hamaika aldiz agindu dituen haize berriak oraindik ez diren Euskal Herri iritsi. Hori gubi balitz, Nafarroan, LIPNren sailatze berezia dugu. Euskara erabiltze eta lantzeari oztopo gero eta gehiago paratuz, eta berriak egindako legeek «Konstituzio espainolak nahiz Nafarroako euskararen legeak» euskarari eskaintzen dioten babes ukatuz.

Herriak agintzen omen duen urte hauetan, herriaren eta herritarren eskubideak errespetatzen omen diren aroan, demokrazia izena daramana, euskararen eta euskaldunon eskubideak gero eta ukatuagoak bizi ditugu: euskarazko zerbitzu publikoak, eta administrazio harrerak kentzen edo zailtzen ari zaizkigu: euskaltegi, euskara zerbitzu, eta komunikabideei diru laguntzak murrizten; izateko baimena bera ere ukatzen, euskarazko irratia eta telebista, erraterako; ikasketxeetako ateak estutzen gurasu den hizkuntzari, eta kanpokoak direnei zabalitzen, kultur ikuspegi anitzekoak ditrelako ibura eta aitzakiatan; horiek ez aski eta euskarazko lanpostuak gutxitzen, euskaraz ari direnei bertze lanetarako bideak ixten; etab. Azkenaldian, ordea, eskubideak ez errespetatzea nabarmen gaituzten, eta eskubidea delituhurtu. Ondorioz, zer

eta euskarazko lantegiak eta komunikabideak ibi, euskarazko lanbideetan dabilzanak atxilotu, epaitzietara eramane, ehunka mila euroko fidantzak eskatu eta kartzelako zuloan sartzen ari dira, horietako anitz, gehienak, tartean torturaren tunela igarota.

Testuinguru horretan ikusten dugu guk Zaineren atxilotzea, Bortzinetako Euskara Mankomunitateko Aholkularitza Batzordean lankide izan dugu, eta dugu; Lesakako Euskara Batzordeko kide ere bada; Berako Labiaga ikastolan irakasle lanetan aritu da aitzineko urteetan; gaur egun Euskal Herrian Euskaraz taldean dabil buru-belarri, eta prezisiki il. Hizkuntza Eskubideen Eguna antolatzen ari zen azken egunotan. Euskaigintzan erabat murgildua. Ibilbide horrek eraman du Zaine kartzelara; guretzat erudugarria den ibilbidea bertze baturantzako delitu da, bortziki atxilotu, inkomunikatuta eduki, torturatu eta kartzeleratzeko arrazoia. Horra bada, euskalduna euskaldun izateagatik, euskaraz aritzeagatik, euskaraz bizitzeagatik, gaitzetsia eta zigortua, epaitzeko gabe epaitua. Oraingoz ez dugu asmatu; nahikoa lan dugu botatzen gaituzten aldi orolurretatik albatzen. Baina dinamika hori buelta eman behar dugu. Zaine, eta hura bezalako anitz, gure artean nahi ditugu, behar ditugu. Euskararen eta euskaldunon izen ona berreskuratu behar dugu, lehenbailehen.

Pello Apeztekoa, Iñaki Gogortza, Bittori Teletxea, Mentxu Peña, Urko Ikardo eta Patri Arburua.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Zapela eta Domingaren orolmena

Azken egun hauetan Arzunko bi etxe zape-lik gabe daude. Horieta-ko bati, frontoiari, natu-rak, haize itxurak hartua, teilatua erauzi eta herria zemahi gauzatutako to-kirik gabe utzi du: kirola-tako, dantaz entsaiuta-rako, haumen jostetara-ko, azken batean, elkar-tzeko tokirik gabe. Bali-teke instituzioren batean norbaitek naturaren sei-naleen zain egon behar ez dela kontuan hartu izana, jakirik frontoiak herri-iki batean duen garrantzia.

Bertze zapela heriko ostatukoa dugu. Natura-ren abisuari aitzin hartu eta aste batzuk lehenago bertze bat jartzen ari zen herriko jendea. Hogeita lauaren ilunabarrean Domingo Borda Duhalderen istripuak horretan ari zirenen bihotzak urratu zituen. Zontxarrak or-daindu gabeko elkar-lan horretan ixiltasuna, amo-



ria, ezintasuna eta oi-nazea hedatu zituen.

Auzolana herriaren-dako lana dugu, doane-koa, lanabesak eta ma-tenaiak eramanez, bes-ta egunetan arituz, bide-ak eta tokiak konponduz, herriaren-eko egina. Au-nitzetan herri eta hiri han-dietan instituzioek kon-pontzen bide dituzten ar-a-zoak edo sortzen dituz-ten zerbitzuak auzolan-aren beraren bitartez egi-ten dira Arzunkun bezala-ko herri-ikietan, non ho-rra ez egitekotan, bizi-tza piskanaka itzali, gaz-tena umandu eta etxeak, bideak zein espazio na-turalak hondatuko baitzi-ren.

Gizarteak eta institu-zioek auzolanaren erre-konozimendua gaurko-tua egin beharko lukete,

bertze hainbat gizarte es-parmutan gertatzen den bezala. Bitartean hitz hauen bidez familiari oi-nazean lagundu nahi diogu; baita Arzunko eta Baztan osokolagunei ere, auzolanaren modu bate-an edo bertzean antzen diren guztiak.

Gaur, larunbatean, zu-re azken bordaraino la-gundu zaituzten tristezia, oi-nazea, dignitatea eta betiko oroimenaz gain zuz-ekin nahi zenuen zapel honi ere present zegoen. Inoiz ahan-tzi eginen ez zaituzten lagunek aureskuan bezala omenaldi gisa eskaini dizute.

Betirarte, zure lagu-nak.

**Arzunko Herriko
Etxea Elkarteak.**

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diano de Navarra 2005-03-21

«Milo aunitz aitemik gastatzen direla uste dut, Leitzarango autobidean adibidez. Kamioi gidarientzat txarra da, jautsiera ariskutsu batekin eta itzultzeko maldia handiarekin. Konprobatua daukagu Imarkoainetik ateri eta Belaten baina 20 minutu lehenago iristen garaia Frantziara. Eta hori errepide guzira moldatu gabe dagoela. Hainbertze urte ditugu errepide honekin bueltak!».

Jesus Mari BEGINO
Igantziako alkatea
D. Navarra 2005-03-21

«Baztango UPNko aunitz jende euskaldunak gara. Guk ez dugu beste estatu bat osatu nahi, baina barne-barne euskaldun sentitzen gara, ez dugu arazonk ikusten Espainian eta Europan egoteko. Baztanen nik bezala pentsatzen duen jende multzo bat publikoki pentsatzen duena azaltzera ausartzen ez zela ohartu nintzen, horrek mugiarazi nituen politikara».

Begoña SANZBERRO
UPNko zinegotzia eta parlamentaria.
Almendoz,
Argia 2005-03-27



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

KULTURA

Nafarroaren Eguna apirilaren 24an ospatuko da Baigorriin

Apirilaren 23an omenaldia eskainiko zaio Erramun Martikorenari

ttipi-ttapa

Baigorriko Basaizea kultur elkarteak apiril osan egingen duen Kulturaldia bururatu Nafarroaren Eguna ospatuko da apirilko azken igandean. Aurten 27garren aldikotz ospatzen da euskaldun guzien bikura izan nahi duen egun honak. Bezperan, apirilaren 23an, Erramun Martikorena herriko artzain kantari famatua ohoratuko dute arratseko Getatik aitzinera elizan egingen den kantaldi omenaldi handi batekin, Euskal Herriko txoko guzietan jandako kantari eta musikariak lagun izanen dituztela; Niko Etxart, Joseba Tapia, Mikel Markez, Anje Duhalde, Peio ta Pantxo, Jean Michel Bedaxagar, Eneko Labeguerie, Ramuntxo Carrere, Karlos Gimenez, Angèle Añorga, Mario Gachis eta Iker Goenaga. bertzeak bertze.

Arestian aipatu bezala, bi ekitaldi hauek



Nafarroaren Eguna, bere aldarrikapen guzietekin, hogelita zazpigarren aldikotz egingen da apirilko azken igandean.

izan dira Kulturaldiko jendetsuenak, baina bertze hainbat izanen dira apirilaren 2tik 30era. Aurten gainagusia hautatua du Basaizeak: «Lurra eta etxebizitza». Bi mintzaldi-estabaden bidez eskualdeko egoera eta Nafarroa osoa aztertuko dituzte. Basaizeak bertze erakunde batzuei ere laguntza eskaini nahi die

eta horrela, ikastolan ahalmen urriko hauren eskolatzearan alde borrokatzen den Seaskako Integrazio Batzordearen aldeko kantaldia egingen da lehenik. Bertze kantaldi bat Filipe Aska kolektiboaren alde egingen da. Filipe Biddart Basaizeako kidea da eta 17 urte hauetan Clairvaux-en preso da, legearen arabera, bal-

dintzapeko askapena 2003az geroz eskuratu beharko lukeen arren.

Bertze herritar batzuei ere lekua egingen zaie egitarauan. Haurren Egunarekin amiazio egun bat euskaraz eskainiko zaie haurrei eta gero helduei, «Porru Salda» herriko taldeak bere irri omenaldi berriplazaratuko baitu.

Bidasoari buruzko bertso-paper lehiaketa antolatu du Aizkolegik

Gure eskualdean ingurumena zaintzeko duela lau urte sortu zen Aizkolegi Elkarteak bertso-paper lehiaketa antolatu du bigarren aldiz. Aurtengoan aukeratu duten gaia Bidasoa erreka da. Lehiaketa, adinaren arabera hiru mailatan banatuko da. 8 eta 12 urte arteko neska-mutikoek guttenez bi bertso osatu beharko dituzte, 12 eta 16 urte artekoek lau bertso egin beharko dituzte eta 16 urtetik goitikoek sei bertso. Helduen mailako irabazleak 150 euro eta trofeoa izanen du sarizat eta bertze kategoriatan, liburu-sorta eta trofeoa eramanen dute garai-lek. Lanak maiatzaren 24a baino lehen bidali behar dira Aizkolegi Elkartera. E-mailza ekainaren 6an, ingurumenaren Nazioarteko Egunean jakinaraziko da Bertzen.

ERROTAZAR
harategia

Etegora, 3
Tel: 948 630 088
BERA

SAROB SANDERS pentsuak
okindogia

Ertegora, 11 Tel: 948 630 088 BERA

bartzirudi BERA

KAMISETAK
BISERAK
TASERAK

NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI eta DISEINU
Bartzirudi 25 Ertegora
Tel.- Faxa: 948 63 10 21

ZJ
Zalain
jateketa
Hostala

14 logela,
bainu eta Tibekin

Ertegora, 11 Tel: 948 63 10 21
Bera - Nafarroa

BERA

Gazte Eguna apirilaren 16an egingen da

Nafarroako parlamentariak Ibardingo lanak ikusi zituzten

Amaia eta Ainhoa

Aurtengoan ere Gazte Asanbladak apirilarako antolatuta du Gazte Eguna 2005, apirilaren 16rako hain zuzen, laz bezala egunguzian ekitaldiak izanen dira: goizean paella lehiaketa egingen da eta ondotik, prestatutakoarekin bazkaria egingen dute. Bazkalondoan Jon Plazaolaren monologia aditu ahal izanen da eta hau bukatuta taldeak joku ezberdinetan lehiari ariko dira. Jokuak bukatuta, egarria kentzeko patin-bizi-poteoa egingen da bertolarien laguntzarekin eta ondoren, Zizka ostatuko terrazan, karaokean kanturako daukaten trebezia erakutsiko digute partehartzaileek. Eguna ongi bukatzeko Labiaga ikastolako sotoan afora izanen da. Gazte Egunean parte hartu nahi dutenek apirilaren 13a baino lehen izena eman behar dute Kultur Etxean. Talde bakoitza gubiernez borts lagunek osatu behar dute eta izena emateko orduan ba-

koitzak 10 euro ordaindu beharko du.

Parlamentariak Ibardingo lanak ikusten

Azken hilabetetan Ibarদিন egindako plan estrategikoaren lehen urratsak ematen ari dira. Plan estrategiko honekin zenbait hobekuntza egingen dituzte Ibarদিন 20 urtetan. Dagoeneko lehenengo proiektua martxan da, gasolindegia, eta martxoaren 30ean Nafarroako Parlamentuko Industria eta Teknologia Batzordeko zenbait parlamentari hurbildu ziren lan horiek ikustera. Obenasa enpresak egiten ari den gasolindegia 1,2 milioi euro kostako da eta 6 pertsonendako lanpostuak sortuko ditu. Gasolindegia egiten ari den lur eremua Udalarena denez, gasolindegian lortzen diren etekinien zati bat Udalarentzat izanen da. Bertalde, gasolindegia ondoan 533 autorentzako aparkalekuak aukazten ari dira.



Labiaga ikastolako batzarra

Apirilaren 15ean, ortzirala, egingen da Labiaga ikastolaren urteko batzarra. Lehendabiziko denaldia 18:30etan izanen da eta bigarrena 19:00etan. Aztergaiak honako hauek izanen dira: aitzineko bilkurako aktaren irakurketa; ikastolaren gaur egungo egoera, ezohiko batzarrerako deia, txosten pedagogikoaren laburpena, pedagogia taldea eta akautzeko galdere-erantzunak.

"Ekobera"ko kartel lehiaketa

Regina Muruamendiak del Puerto Jesusen Bihotza ikastetxeko ikaslea izan zen Berako I. Feria Ekologikoa (Ekobera) iragarriko duen kartel lehiaketaren irabazlea Feria ekainaren 24 eta 25ean egingen da eta hau iragaritzeko kartel lehiaketa paratu zuten martxan antolatzaileek. Herriko



Argazkiak: JON ALTZIBOURN

Beratarrak garaile Nafarroako Haur Kantari Txapelketan

Martxoaren 20an Iruñeko Gaiarre antzokian egindako Haur Kantari Txapelketaren finaletik beratarrak emaitza onekin bueltatu ziren. Jesusen Bihotza ikastetxeko Axuriak taldea irabazle izan zen txikien kategorian, Josune Elgorriaga eta Itxaso Errandonea bikote beratarrak ere txapela jantzi zuten gaztetxoaren kategorian eta azkenik, Josune Elgorriagak berak bigarren postua eskuratu zuen gaztetxoaren bakarkako atalean.

hiru ikastetxetatik aurkeztu ziren lanak, guztira 125 ikaslek parte hartu zuten. Reginak bere kartela erakusgai izateaz gain, Bertiz Aben-

tura Parken egun pasa polita irabazi du bera eta bere gelako guzientzat. Lizarrako "Cuaderna Via" bodega ikusteko aukera ere izanen du.

ANSONEA *Jatetxea*

- Egunerako menua eta karta
- Kafeberru eta jai egunerako menu bereak

Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

ZUBIONDO *JATETXEA*

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagarrotegia jatetxea sagardotegia

© 948 631 462
Auzite 1 - BERA

LESACA

Zaine Rekondo baldintzarik gabe Soto del Realen espetxeratu dute

Inkomunikatua egon zen bitartean tratu txarra jaso zuela salatu zuen

Aitor AROTZENA

Guardia Zibilak Beran atxilotutako Zaine Rekondo Lesakako gaztea espetxeratzeko agindu zuen martxoaren 21ean Espainiako Auzitegi Nazionalako Fernando Andreu epaileak eta Soto del Real kartzelara bidali zuen. Guardia Zibilaren esku inkomunikaturik egondako bost egunetan jasotako tratua txarra izan dela adierazi zion bere abokatuari eta amari, elkarrekin egon ahal izan zuten tarte laburrean. Halere, Zainekez izan zuen tratua inguruko zehaztasun gehiagorik eman, abokatuak azaldu zuenez "oso urduri" baitzegoen. Epailearen aurtean ere inkomunikaturik izan zen. Auzitegi Nazionalaren atarian autobusean Lesakatik joandako lagun eta senide aunitz bildu ziren, baina polizia urrundu egin zituen eta tentsio oneak bizitu ziren.

Martxoaren 17ko goizaldean atxilotu zuten Zaine Rekondo, Berako etxean. Haren etxea miazteaz gain, senideen beste bi etxe ere miaztu zituen Guardia Zibilak Lesakan. Zaineren



Argazkia: JOSUA OLAGARAI

Lesakako eta Berako udalak kezkatuta agertu ziren Guardia Zibilaren esku inkomunikatua zegoen bitartean Zainek jaso zezakeen tratuagatik eta prentsaurrekoa eskaini zuten Herriko Etxean, Zaineren senideekin eta hainbat herritarrekin batera.

senide, lagun eta hainbat herritarrekin batera, Lesakako eta Berako udalak ere kezkatuta agertu ziren inkomunikatua zegoen bitartean jaso zezakeen tratuagatik eta prentsaurrekoa eskaini zuten Herriko Etxean. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Euskal Herriari Euskaraz taldeak eta bortze hainbat erakunde beraien elkar-tasuna adierazi zioten. Zaine inkomunikatua egon zen bitartean, egunero egin ziren batzarrik Lesakan, nahiz eta Guardia Zibilak manifestazioak egiten eta hoge lagun baino biltzea debekatu.

Ingurumena zaintzeko hitzarmena sinatu dute Udalak, Aceraliak eta Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuak, Lesakako Udalak eta Aceralia Transformados lantegiak Lesakan energia aurrezpena eta dibertsifikazioa bultzatzeko elkarian hitzarmena sinatu zuten martxoaren 18an. Hiru erakundeek, Lesakan autoa baino jasangarriagoa diren bertz baliabide batzuen bidez mugitzeko hezkuntza eta gizarte neurriak bultzatu nahi dituzte. Bertzeak bertze, erdigunea peatonalizatu eta Berautik Alkaiagarako bi-



UJIZIAGO ARGAZKIA

Martxoaren 18an egin zen sinadura ekitaldia.

degoria egin nahi dira aurten. Lan hauen aurrekontua 29.400 eurokoa da. Nafarroako Go-

bernuak 14.500 euro jarriko ditu, Lesakako Udalak 8.900 euro eta Aceraliak 6.000 euro.

FLASH

Tantirudantza apirilaren 17an

Apirilaren 17an egingen da Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak antolatutako Tantirudantza. Faltzes, Lasarte, Arrasate eta Lesakako dantzariak parte hartuko dute. 11:45etan kalejira egingen dute taldeek karrika ezberdinetan. 12:45etan, Tantirumairu taldekoek Zubigainekoa eskainiko dute eta 13:00etan dantza saioa izanen da plazan, talde guzietan. 17:00etan haur animazioa izanen da plazan, «Kiki, Koko eta Moko» pailazoekin.

Irriterapia tailerra

Energia positiboz lepo egoteko irriterapia tailerra egingen da apirilaren 6tik maiatzaren 4ra, asteazkenetan 18:00etatik 20:00etara.

Deñe
Leizorria
Martxoaren
948 971 114
BERRIZAUN 2. LESACA

GOZZAIDIA
BERRIZAUN
948 63 74 60

IRU BIDE
NARRU
948 63 74 60
LESACA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESACA
IMANOL TELLETxea KUZAYA
Gasola elkeru eramaten dugu
Tel: 948 63 74 60 31770 Lesaca (Nafarroa)

ETXALAR

Juan Maia eta Santiago Mikelestorenak irabazi dute museko Magra Sariketa

Larraburua elkarteak apirilaren 10ean eginen du urteko batzarra

Joseba eta Nerea

Larraburua jubilatutako elkartearen Magra sariketa San Jose eguneko buketu zen. Urriaren 23az geroztik musean 16 bikote eta partixisean 6 bikote lehia bizian jokatzeko aritu izan dira igandero-igandero giro ederrean. Baina lehiaketa honetako sariek jabea badaukate, lehendabiziko postua eta urdaiazpikoa eskuratu dutenak Juan Maia eta Santiago Mikelestorenak izan dira. Aldiz, Candido Egurtzek eta Martin Indaburuk, bigarren postuan gelditu den bikotea, sorbalda bana etxeratu dute. Partixisari dagokionez, Asuncion Elizalde eta Birjina Arburua dira, eta hauek erurdaiazpiko bana lortu dute. Sanketa honi amaiera emateko afari eder baten bueltan elkartzeko ziren Larraburua elkartearen martxoaren 19an, eta egun honetako jaki nagusia, lehiaketaren izena ematen dion magra izan ohi da. Gi-



Joan den urteko magra sariketan parte hartu zuten herritarrak.

ro ederrean bildu ziren partaide gehienak jokuko lehiak alde batera utzita. Baina honekin ez dira mustxapelketak akautu. Dagoeneko udalheñeko sariketa martxan baitago. Joan den apirilaren 27 hasi zuten txapelketa hau eta maiatzaren bukaera aldera jakinen dugu parte hartzen duten 8 bikoteetatik zein den nagusitzen dena.

Larraburuko Batzar Orokorra

Larraburua Jubilatutako elkarteak heldu den igandean, apirilaren 10an eginen du elkarte batar orokorra Larraburuan, meza nagusiaren ondotik. Bertan, ia zko kontuak onartuko dira, aurtengo aurrekotasun aztertuko da, junta berriak da, eta aurtengo egitasmoen berri emanen da harat bitzen

diren bazkideen aitzinean.

Altxata Kultur Elkarte batar Orokorra

Joan den San Jose egunean, martxoaren 19an, egin zen Kultur Etxean Altxata Kultur Elkarte batar orokorra. Joan den urteko kontuak eta aurtengo kontuak onartu ondotik junta berri zen. Hainbat

urtez juntan egon ondotik, Mariasun Olagarraik eta Jon Santsifrenak junta utzi zuten, eta beraien ordean Gerazi Lujua sartu zen. Beraz, honela osatua dago junta: Lehendakaria Aina Arburua, lehendakariordea Iñaki Danborriena, idazkaria Nerea Mikelestorenak, diruzaina Gerazi Lujua, eta izaskun Ariztegi bokala.

Aberri Eguna

Azkeneko urteetan bezala, aurten ere horri Aberri Eguna ospatu da. Bazko eguneko eguerdian deitua zen jendea udaletxe aitzinera Udalbiltzak Euskal Herri osoan irakurri egin behar zen ekitaldian parte hartzeko. Hainbat herritar eta Aste Santua bertan pasatzera etorri diren kanpotar hurbildu ziren plaza ingurura udaletxetik Patxiku Irismarik irakurri zuen Udalbiltzak prestatutako komunikazioa "Urrats sendoak ematen" lelopean entzutera.

HERRIKO
 USTAL - ZABETEAK

Herriko Ustak, 117. 48100. BERRIO
 948 63 70 30

LEGARRA
BERRIKUNTZA
 OPOSIZIOAK PRESTATZEKO
 LIBURUAK EKARTZEN
 DITUGU, EUSKARAZ ETA
 GAZTELERAZ
Egunero irakurri

Tlfno. / Faxa: 948 63 70 30 • Alhiztur, 3 •

«USOA»
 NEKAZARI KOOPERATIBA

Genaduentzat
 pertzurik egokiena
 Tlfno: 948635214
ETXALAR

erropak - mairuak
 mantak - ordukoak
 toallak - kortsuak
 alfontzak

Goya
 Bera

Alhiztur, 3 • Tlfno: 948 63 70 30

Alberto RETEGI
 Abokatuak

Alhiztur, 17 BERA • 948 630 763

abokatua

ARANTZA

Nafarroako Herri Kirol Jolasen lehen kanporaketa igandean egingen da frontoian

Herritik hiru talde prestatzen ari dira txapelketan parte hartzeko

Nerea ALTZURI

Urteroko hitzordua ailegatu zaio herriko gaztetxoek. Aurten ere, aspaldiko urteetan bezalaxe, herriarrak prestatzen ari dira edizio berriak. Heldu den apirilaren 10ean, igandean goizez txapelketako lehen saioa izanen da. Aste Santuko oporraldiaren ostean, entrenamenduak eta saioak izanen dira hurrengo asteburuetan. Gainera, aurten badirudi, arantzarrak ez direla bortziriar bakarrak izanen. Nolanahi ere, hiru talde eratu dira eta dagoeneko entrenamendu saioak ere abiatu dituzte. Pantaleon Errandonea eta Joxe Ramon Amoros maixu dituztela, astelastehenetan eta ortzegunetan, arratsaldeko borlzetan proba konbinatu eta soka tiraldi saioak egiten dituzte. Azken urteetan bezala, NARBARTeko ordezkarien laguntzarekin, Sokatira lehiazarako ere kadeteen tal-



Arantzako

Arantzako herri kirol taldearekin batera, Igantzi eta Berakoak ere arituko dira aurten Nafarroako Herri Kirol Jolasetan. Bertze urteetan bezala, Pantaleon Errandonea eta Joxe Ramon Amoros izanen dituzte herritarrek irakasle.

dea osatu da. Bertze bi taldeek, proba konbinatuko lehiaketetan esku hartuko dute. Hurbil-hurbiletik segituko dugu ekimena. Edozein modutan, heldu den igandean, hilaren 10ean herriko frontoian dugu lehenbiziko hitzordua.

Bai Euskarari ziuertagiriak

Joan den martxoaren 19an, larunbatean, Bortzirietako Bai Euskarari prozesuaren baitan, ziuertagiriaren banaketa egin zen. Kontseiluek bideraturiko prozesu honetan ehundik

gora denda, elkarte, talde, jatetxe, ostatu... eta bertzelako gizarte eragileek konpromisoak hartu zituzten Bai Euskarari hitzez eta ekin-tzez aintzinera eramateko. Euskararen normalizaziorako urratsak egiteagatik, Bai Euska-

ran ziuertagiriaren BI-DEAN: Blanka Ilea-paindegia, Goienburu Iturgintza eta Pablos-nea Jatetxea kokatu dira.

GUK ZERBITZUA EUSKARAZ ziuertagiria, Arantzako Aterpeak, Iargi Okindegiak eta Aldapa Papertegi-Estankoa jaso dute.

GUK ZERBITZUA ETALANA EUSKARAZ mailako ziuertagiria berri. Ekaitza Elkarteak hartu du. Berako Kultur Etxeko ekitaldian, herriko zenbait ordezkari izan ziren ziuertagiriak jasotzen.

0-3 urteko haurrendako eskolen alde

Arantzako Udalak bat egin du 0-3 urte arteko Haur Eskolen aldeko Udalen Batzarrarekin. Arantzako Udalak bat egin du Batzar honen helburu nagusiarekin, hau da, 0 eta 3 urte arteko haurrendako ikasketek hezkuntza sairean sartzea eskatu du.

Jose I. Gonzalez Enguita

Pintura lanak orokorrean

985 225 400
985 225 193

Barrio de Arantzako 101
31120 BERBA

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORAIA

LESAKA:
• Arantzakoak 2000ak, 2000ak 1000ak
• Arantzakoak 2000ak 1500ak eta 1500ak 1000ak
New: MALDAERREKA S.L., Bidaia 11 • Txeca: 948 63 70 50
arreak@artekari.com

BURLATA:
ARTEKARI S.L., Txeca: 948 133338 Fax: 948 133712
New: La Yola barria, 4. beheko • 31100 BURLATA
arreak@artekari.com

Lege Adarreak
Makina eta merkatuak
Kontaketa eta Arango Sektorea
Le-kontratuaren legiritza
Ezpena berriaren azterketa
Diziplina ekonomia
Kontabilitateak
NA eta IRT
Ezpena ekonomia
Ezpenaren eta jarduera ekonomia
Bereizgarritasun planak eta kontratuak

616 513 492

Pititi

ESKABAZIOAK

(Arantzako)

3070 DORZIBERE (NAFARRA)

SUNBILLA



Argazkia: JOSUEN OLAGARAI

Antzakaitz elkarteak antolatutako Asteburu Kulturala egin zen martxoaren 19 eta 20an. Haur eta gaztetxoek ederki pasatzeko modua izan zuten.



Argazkia: EDURE ZUBIETA

Espelosingo zubia 1954an eraiki zen eta zura hondatua zegoenez, arriskutsua suertatzen zen handik igarotzea.

Espelosingo zubi zaharra auzolanean moldatzen ari dira

Zubiaren zura aldatu eta ingurua txukuntzen ari dira

Itipi-itapa

Bidasoa erreka gainditzen duen Espelosingo egurrezko zubi zaharra auzolanean moldatzen ari dira azken aste hauetan. Sunbillako

koadrila batek zubia hagituz hondatua zegoela ikusi zuen eta konpontzeko lana elkarrekin egiteko prest agertuzen. Herriko Etxeari laguntza eskatu ondotik, az-

ken asteotan jotake lanean ari dira zubia berritzen. Sunbillako Udalak diruz lagunduko die eta Nafarroako Gobernuari ere dirulaguntza eskatu zaio. Eskulana

berri, hamar sunbilda-
rek egiten dute.

Espelosingo zubia 1954an eraiki zen eta zura hondatua zegoenez, arriskutsua suertatzen zen handik pasatzea. Sunbillako koadrila hau egur berria jartzten ari da zubi osoan eta gero, zubi inguruas ere moldatzeko asmoa dute. Dena garbitu ondotik, harizko mahaibatzuk jartzeko intentzioa

dute, jendeak denborapasa modu goxoan egoteko izan dezan. Lanaren aurrekontua 3.600 euro ingurukoa dela jakinarazi dute.

Javier Mantecola
Lehenko instalatzailea
Iturritza
gara
kalefakzioa
Tel. 026 449 602 - BERA

Jaki inguruak bere gurean mantentzeko zuretzat, amama, kaka... | eta anaiak egiteko garbitu nahi baduzu, delu! Gu erabakitzeko para hornituz. Termite eta Polifenol kontrako instantanitate.
BERA DESINFECCIONES
☎ 948630155
BERA

LEIHOZAR
☎ 948630176 • BERA

ERREKA DE
SATA
PLATER
KONTRAKTUALAK
PWTXOAK
BERRITZEN
UTXAK... 948 630 054

TOLDOAK BALBENTIA-KONPONKETA-ALOKARITZA-ERROTILADIA
MOSKITERAK, PERTSIANAK BOTOZATUAK
BERRITZEN... **PVCzko LEIHO ETA ITXITURAK**
TOLDO BAZTER

PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
☎ 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

DONEZTEBE

Zugarramurdiren adierazpenak auzitegira eramateko asmoa agertu du EAK

EAJ-PNVko zinegotziak udalean irregulartasunak eta etika falta salatzen zituen

ttipi-ttapa

Eusko Alkartasunako ordezkariak prentsaurrekoa eskaini zuten martxoaren 23an Donezteben. Maiorga Ramirez, Nafarroako EAKo lehendakaria ari zuten solasean, eta berekin batera Mikel Irujok, Antolakuntza idazkaria Nafarroan, Ramonxo Etxebeste gaur egun Doneztebeko alkate denak eta Miguel San Miguelelalkatza ohiak, herriko batzordeak eta herriko Eusko Alkartasunaren afiliatuak parte hartu zuten babesa emanez. Prentsaurreko honen xedea Doneztebeko EAren ordezkari-tzari sostengua ematea izan zen, Alfredo Zugarramurdi EAJ-PNVko zinegotziak egindako adierazpenak salatzeaz gainera. EAJ-PNVko Jesus Juanena eta Alfredo Zugarramurdi zinegotziak bere kezka agertu zuten, EAren «barne krisiaren» eraginez Doneztebeko udala geldindako erria



Argazkia: Aritz

Eusko Alkartasunako ordezkariak elkarrekin agertu ziren.

nez. Alde horretatik, Ramon Etxebestek alkate karguan segitzea nahiko duen edo ez jakiteko herriarrei galdeketa egitea proposatu zuten. Horretaz gain, Miguel San Miguelel agintaldian eta gaur egun hirigintza arloan egiten ari diren zenbait ekimen «irregularrak direla eta sobera etikoak ez direla» salatzen zuten. PNVko zinegotziak.

Horren aitzinean hitz gogorak egin zituen Maiorga Ramirezek eta PNVko zinegotziaren adierazpenak gezurra direla errateaz gain, abokatuaren esku utzi eta auzitegietara jotzeko asmoa ere agertu zuen.

Miguel San Miguelek, alkate izan zen hamabi urteetan, zuzen jokatu zuela eta Donezteberen eta donezteberren alde lan egin zue-

la azpimarratu zuen Maiorga Ramirezek.

Nafarroan indar aber-tzale ezberdinek Nafarroa Bai erakundearen bileren bitartez, «Zugarramurdiren hitzak ez direla egokiak» uste du Nafarroako EAKo lehendakariak eta bere interes pertsonalak eta partidistak utzi eta Donezteberren alde lan egiten has-teko eskatu dio, «EAren izen ona zikindu ordez».

Arkupeak elkarteak Loiolara

Arkupeak erretiratu- en elkarteak Loiolako San Ignacio basilikara bisita egingen du apirilaren 14an. Autobusaren irteera ordua, izena ematekoan jakinarazi zaien interesatuei. Goizeko 11etan Meza Saindua izanen dute San Ignacio basilikan eta ond-tik astia izanen da San Ignacionen sortetxea eta basilika bisitatzeko.

13:00etan Loiolatik Zestoa aldera abiatuko dira, Arozena jate txan bakaltzera. Menuan zizka-mizka hotz eta beroak, salda, legatza euskal erara, umeria gar-nizioarekin, txapaina, tarta izozkiarekin, ura, ardoak, kafea eta eda-ri normalak izanen di-tuzte.

Bazkalondoa, 16:15etan dantzaldia izanen dute Joxe An-gelekin eta bi ordu be-randuago, 18:15etan autobusak etxerantz abiatuko dira.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estaltako taulak
- Entzimerak
- Ate amurtak eta sukalde mobilendakoak
- Pin-tura eta bernizak
- Bainurako mobilak eta osagariak
- KIT mobilak, esku-erremintak, etab...



Tel. 948 456 080
Fax: 948 456 334
DONEZTEBE

TXANPA

SERIGRAFIA

estampazioak

Kopiatuak, liburuak, argazkiak, etiketak, kartak, liburuak, etab.

Tel. 948 456 080
Fax: 948 456 334
Doneztebe sarreran
txanpa@doneztebe.es

GOIZUETA

«Txino» auzoko fiestak hilaren 15 eta 16an egingen dira

Larunbatean rock kontzertua izanen da

Esteban AROTZENA

Iazko edizioan, lehenengoan, Txino izenaz ezagutzen den auzoko fiestek jasotako erantzun ederra ikusirik aurten ere antolatzea erabaki dute herriko hainbat erakundek. Ostirala 15ean, Zubiondo tabernan jokatu den mus txapelketak emanen dio hasiera jaiari Arkumea eta txuletak egonen dirajokoan. Larunbatean, egun nagusian, 12etan itxaferoa botako da. Ondoren, lezro hauek idazterakoan zehaztu gabe zegoen ekitaldia egingen da, eta 14:30etan herri bazkaria izanen da auzoko frontoan Arratsaldekoa eta gauekoa aipatuz esan, Mikel Salaberri-



Jon Apezetxeak irabazi zuen Antiguako lau terdiko txapelketaren lehen edizioa. Jon Narbarte finaleko arerioak ez zuen egunik onena izan.

ren eskutik etorriko dela bazkal ondoren hasiko den dantzaldia. 20.00etan berriz, triki-bertso-poteoa egingen da, eta gauean, aurtengo jaiari bukaera emateko, rock kontzertua Stupenda Jones eta beste hainbat talderekin.

Argazkiak: Txinon 15

Nafarroako Haur kantari txapelketan, gaztetxo-en mailan, Nerea Zabaleta txapeldun izan zen bakarlariren artean eta Goizuetako Gaztetxoak taldeak ere lehen saria eskuratu zuen. Txiki-tan, hirugarren izan ziren Goizuetako Txikiak.



ARESO

Herriko kirolariek lanean segitu dute Aste Santuan ere

Juana Mari SAIZAR

Aste Santuko oporraldia denentzat ez da berdina eta kirolariak adibide dira. Hauek ez dute jai hartzen eta entrenamenduetan nahiz txapelketetan bizkor dabilta. Pilotari mordaxka ditugu herrian, Aurrera pilota eskolan, Anartz Olano, Belateko

bigarren mailako txapelduna, Mikel Sagastibeltza lagun zuela, suertatu zen. Errekako ligaxkan Unai Onsaldo Erasorekin batera final laurdenetan sartu da, Mikel Olazabal eta Jokin Barandarrain bikoteak ere sartzea lortu zuen, aurkariel 22-7 irabazi ondotik. Mikel Ola-



Jokin Barandarrain eta Arkaitz Nieto martxoaren 19an Pake-Toki elkarteak egindako mus txapelketan txapeldun suertatu ziren.

zabal oso lanpetuta debil, Laudio, Elgeta eta Getxoko txapelketetan antzekoa baita. Bestalde, Zuriñe Gokoetxea igerilariak Euskadiko

Kopan parte hartu zuen, martxoaren 20an bere taldea klasifikatu baitzen.

Aste Santu honetan ere, urteroko xake ikas-

teroa egin da, martxoaren 29ik apirilaren 1a arte eta larunbat Santuan emakumeen afaria egin zen Pake-Toki elkarte-ari.

LEITZA

XXVII. Herri lasterketa igande honetarako antolatu du Aurrerak

Andres Perezen marka hausteagatik 160 euroko saria izango da

ttipi-ttapa

Igande honetan, apirilaren 10ean egingen da Aurrera elkarteak antolatutako XXVII. Herri Krosa. 10:15etan benjaminak abiatuko dira, 10:30etan alebin eta infantilak eta 11:15etan kadete, junior, senior eta beterano kategorietakoak. 200 korrikalaritik gora espero da. 13:00etan sari banaketa egingen da eta 14:30etan bazkaria Musunzarren.

Sariei dagokienez, senior mailan gizonetako irabazleak 200 euro jasoko ditu, 140 bigarrenak, 80 hirugarrenak, 50 laugarrenak eta 35 bosgarrenak. Emakumeen artean garaile denak 100 euro jasoko ditu, 70 bigarrenak, 40 hirugarrenak, 25 laugarrenak eta 18 bosgarrenak. Horretaz gain, Andres Perezen marka hausteagatik (29.49) antolatzaileek 160 euroko saria ematen dute. Senior mailako gizonak 10 kilometro eta emakumeek 5 egingen dituzte.



Paleta gomako Euskal Herriko txapela eskuratu zuten Iera Agirrek eta Saloa Iraolak, Ordiziako finalean. 2003an kadete mailako Euskal Herriko klubaren arteko txapelketa irabazi zuten Aurreraren izenean, beraz bigarren txapel handia da bikotearentzat.

Hurtzaindegiko aurrematrikula

Leitzako udal haur eskolan (0-3), apirilaren 1etik 30arte aurrematrikulazioa egiteko epe-

aldia ireki da Zerbitzua- ren eskaera egin nahi duzuenok, haur eskolara joan zaitzekete haur- raren izen abizenak ematera eta bertan ematen zaizkizue aurrematrikulazioa egiteko behar diren aginen berri.

Aurrerako pilotariak txapeldun

Paleta gomako Euskal Herriko txapela eskuratu zuten Iera Agirre Iturriagak eta Saloa Iraola Urkiolak, Ordizian jokaturako finalean. 2003an kadete mailako Euskal Herriko klubaren arteko txapelketa irabazi zuten Aurreraren izenean, beraz bigarren txapel handia da neska bikotearentzat.

Eskuz, Belateren txapelketan benjamin eta infantil mailan txapeldun izan dira Mikel Sagastibeltza eta Anartz Olano eta Ander Aranburu eta Jon Jaunarena. Kadetetan, azpitxapeldun izan ziren Xabier Alustiza eta Migel Olano.



HERIOTZA

Martin GARTZIARENA

Lehenbiziko aizkolari txapelduna hil da

Martxoaren 28an, Pazko Astelehenean hil zen Martin Gartziaarena Lebaian, 77 urte zituela. Gomztaran auzoko Lesakenea baserrian jaio eta bertan ezkontuta bizi zen Gartziaarena. Bere denboran, aizkolari handia izan zen eta 1950 urtean egin zen lehenbiziko Aizkolari Txapelketa berak eskuratu zuen. Iurrebaso, Korta, Luxia, Arria... garaikideekin jokaturako apustuetan garaile atera zen, Toloako zezen-plaza gainazka bete ondotik. Punta-puntako aizkolaria izatera iritsi baldin bazen ere, gazterik erretiratu zen Gartziaarena.

BEINTZAko ESTATUA
E. VILARDO
CENTRAL BARRIO

XATURETXEA
Zaharri JATETXEA
Tfno: 948637027 LESAKA

BAZTAN BIDASAKO sagardotegiak
LARRALDEA eta LINDURRENBORDA
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA
Tolosa auzoa - LEKATZ
948 421211 - 939 464317

LINDURRENBORDA
Tolosa auzoa - LEKATZ
948 421211

Huttia
Ire zaintza
Fermin Maripena Larralde
© 666 407214 • 948 631199 • BERA

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERN ZATZEAN
ESTALDURA OROKORRA
Bera - Tfno: 948 639 735 - 407 404 781

Moda

gehigarria
2005



Udaberri - Uda



FANTXIKE

Mertzena • Opanak • Lentzena
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA

Jaime Urrutia 15, ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 312



IBARROLA

haurrendako arropa 0-14 urte

Paroki 6, DONEZTEBE • Tfnoa: 948 450 463



KAPRITXO

Landa industrialdea
LEITZA
948 510 994



MODA PREMAMA

Mirari

Serapio Mujika, 14
Tfnoa: 943 615 886
ALUN



Zeta: 11 edo 12 urte behar duzun gutia daukagu!



GIZONEZKOAK

Kolore ilunak alde batera utzi eta udaberri-udako moda indar eta kolore bixiekin dator. Dendetako erakusleihoak fuk-sia, berde-pistatxo, laranja eta urdinez koloreztatuak daude. Konbinazioetan kolore hauek txuriarekin nahasten dira gehienak eta emakumezkoen eta gizonezkoen jantzietan kolore berdintsuak ikusi ahal izanen dira, baina gizonezkoetan gehien eramanen direnak laranja eta arrosa dira. Gizonezkoen kamiseta eta alkandoretan marrak izanen dira nabarierak eta karra-tuak gutiago ikusiko dira.

Kolore bixiak eta marrak nagusi



05

azkeneko joerak




Estilo eta oihal konbinazio aunitz

EMAKUMEZKOAK

Emakumeei modak aukera gehiago ematen dizkie. Hala, udaberri-udako modan kolore biziek garrantzizkoak izanagatik, koloreaz gain estilo eta oihal konbinazio aunitz izanen da. 1970 eta 50.hamarkadetako moda da aurten-goia eta lasaiera handiko soinekoak, gerrialde estuak, mozketa zuzena duten txaketak, eta bordatu eta lore aunitzeko jauntziak.

Laranja kolorea dotorea eta ongi ematen duena da, tonalitate horiak konbinatuz. Txuria eta urdina izanen dira kolore indartsuenak. Baina udako modak aukera ezberdinak ematen ditu, eta kolore ia guztiak ikusiko ditugu.

Estanpatuei dagokionez, lore handi edo ttikiak eta edozein koloretakoak, kamisetetan eta osagarrietan *sinadura* handiko logoak.



ZAPATADENDA
 • Osagarriak
 • Konponketak

Larunbat arratsaldetan irekia

Arretxea 20, behea • LESAKA • Tfnoa: 948 637 594

Zapatadenda.
Kalotxa.
 Osagarriak.
 Konponketak.

Lapua 42 Bata 37000 Nafarroa 688 822318



KAMAMILA
 Merkatu kalea 2 Doneztebe • Nafarroa

IPINGI

Europa formalak eta informalak
 konplementuak
 bitxiak
 eskutegintzako materialak

Santiago 88 • Elizondo
 Tfnoa: 948 580 939

Haurdunaldian ere dotore



Haurdun egoteak ez du erran nahi moda alde batera utzi behar duzunik. Txuria, beltza, beixa eta urdin koloreak ez dira inoiz falta izan, baina denboraldi berri honetan kolore biziak nabarmenduko dira.

Aukeran, emakume gehienek galtza luzeak edo piratak hautatzen dituzte, baina pixkana-pixkanaka soineko elastikoak hasi dira agertzen.

Joan den urtean tripa markatzea eta tiro baxuko galtzak erabiltzea modan jarri zen, eta aurten, ia jantzi gehienak horrelakoak izanen dira.



HAURRENDAKO Kolore bixiak

Etxeke ttikittoentzat ere kolore bixiak gailenduko dira udaberri-udako modan. Berdea, horia, laranja, urdina, fuksia... koloreak jantzi guztietan ikusiko ditugu; piratetan, soinekotan, kamisetetan, oinetakoetan... Estilo aldetik pirata eta gona motxak izanen dira gehien ikusiko direnak eta kamiseta tirantezkoak kolore eta marrazki aunitzekin.

Oinetakoak aunitz aldatu dira azken urteotan, eta neska nahiz mutilentzat berde-pistatxo kolorekoak ikusiko dira gehien, zola fineko oinetakoak, sandaliak eta zapatilak kolore guztieta-koak.





GAZTETXOAK helduagoen antzera

Gaztetxoen moda helduagoen antzekoa da, mutilendako galtza piratak, bakero gastatuak, eta kamiseta tirante finekin edo lodiekin, beti ere, dotorezia galdu gabe. Neskendako mini-gonak eta 3/4eko gonak aunitz ikusiko dira, kolore arrosa, txuria, berdea eta horia bakeroekin konbinatuz. Mutiletan aldiz, granatea, berdea, urdina eta txuria. Galtza piratak eta luzeak behe aldean gorantz bilduak eta kolore aukera zabalak izanen da. Estilo aldetik lore handiak eta kolore indartsuak gailenduko dira. Nesken oinetakoetan, zola fineko zapatil laranja, berde, urdin, larrosa... kolore guztietakoak.

Osagarrietan, neskek aunitz erabiliko dituzte zapelak eta pañuloak eta mutilek bixerak.



ELFADAINDEGIA

YOAN

EDERIALUPERO ADETUA

- Luzapenak
- Ile-tratamenduak
- Behin betiko alisatua
- Solarium
- Estetika

Bidasoa, 8 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: 948 63 01 77

OSIÑA

Jantzidenda
Bitxiak

Adosio, 3 beheak • LEZAMA • Tfnoa: 948 831 951

MERCHE

MODA HOMBRE

Giovanni Valdi - Sandro Sellini - Caramelo Gala

Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943612626

DIESEL
JUAN J. PIKABEA

Arropa konfeksioak
 Senargaienezko trajeak
 Gizonendako jostugintza
 Egindako trajetan
 aukera zabala
 Galtzak 70 neurria bitarte
 Atorrak 54 neurria bitarte
 Jertseak ere taila handiak

Ametzia z/g.
DONEZTEBE
 948 451 670

HONORIO TABERNA

Gizaseme eta
 Emakumeendako
 Boutique



Merkatarien karrika 29. **DONEZTEBE** • 948 450 109

Belzunequi
 DESDE 1991



Jame Urzua 44. **ELIZONDO** • Tfn: 948 540 056

SORGIN-XULO




Plaza Zaharra, 4 • **LESAKA** • 948 638 032

OSAGARRIAK

Elementu osagarriak neurri handikoak eta kolore aunitzekoak izatea da joera orokorra.

Boltsoetan denetarik izanen da, ttikiak eta handiak, dena dago modan. Lehen joerak markatuak egoten ziren, gaur egun denak balio du. Koloreari dagokionez, berde pistatxoa izanen da nagusi, baina baita urdina eta arrosa ere. Erosotasunari begira boltso gurutzatuak eramanen dira.

Mutilek gero eta gehiago erabiliko dituzte marroi eta beltz kolore boltsoak.

Koilareak neurri handikoak eta luzeak. Materialari dagokionez, akrilikoak, egurrezkoak, larruzkoak edota material naturalekin eginak. Belarritakoetan ere joera berdintsua izanen da eta forma kurioso eta ezberdinekoak. Pultseretan kolorea da gehien nagusitu dena, eta esku berean kolore ezberdinekoak jarri ahal izanen dira, gehienak aro itxurakoak.

OINETAKOAK


Emakumeen oinetakoetan diseinatzaileak gehiago ausartzen dira, eta denboraldi batetik bestera eredu gehiago ateratzen dituzte. Takoi fineko oinetakoak nagusituko dira eta plataforma itxurakoak desagertzeko joera dute poliki-poliki. Aukera aunitz dago. Tira gutti dituztenak, *manoletinak* eta kirol-oinetakoak zola finarekin baina kolore eta marrazki aunitzekin.

Gizonezkoetan kirol oinetakoak furi-furian daude, eta kolore ausartak gero eta gehiago erabiltzen dira. Udaberri-udako denboraldian kolore eta diseinuak du garrantziarik haundiena. Aurrerantzean, zuekoak ez dira hainbertze ikusiko.

BAINUJANTZIAK

Bainujantzietan bikiniak da gehien erabiltzen dena eta tri bikiniak urtetik urtera garrantzi gehiago hartzen ari da, eta bertzalde, bainujantzi osoa gero eta guttiago ikusten da.





BARNEKO ARROPA

Barruko arropetan ere kolorea nagusituko da aurten: urdina, laranja, fuchsia eta berde pistatxoak. Bularretakoetan aroa mantenduko dira, eta batez ere, betegarria dutenak.

Kolore txuriak eta beltzak ez dute garrantzia galtzen, baina batez ere puntilekin eta konjuntuetan eramanen dira, ez sueltoan.

Barneko arropen artean, pijama eta kamisoiak urtetik urtera kolore eta konbinazio bixiagoekin lantzen dituzte. Adibidez, kamiseta eta *culotte* konjuntuoak kotoi, likra eta gasezko oihalak...



DESKONTUAK

>> ARROPA DENDAK

EDURNE	Bera	%5 (30 € tik goiti, eskura ord.)
J.J. PICABEA	Doneztebe	%10 Galtza-marka batzuetan ez
KAMAMILA	Doneztebe	%10 (30 € tik goiti)
KATTALINGORRI	Elizondo	%10
IPINGI	Elizondo	%10 (30 € tik goiti)
FANTXIKE	Elizondo	%10 (30 € tik goiti)

>> LENTZERIAK

MARICRUZ	Doneztebe	%10 (30 € tik goiti)
	Elizondo	%10 (30 € tik goiti)
DEÑE	Lesaka	%10 Lentzerian

>> ZAPATADENDAK

KALOTXA	Bera	%5 (18 € tik goiti)
OSTIZ	Doneztebe	%10
TXINELKA	Lesaka	%10 (30 € tik goiti)
MOLINO	Irun	%10

Informazio gehiago:

📞 948 63 54 58

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK
saltzen dituen txartelak erosiz,
gauza aunitz lor ditzakezu:
ttipi-ttapa lagundu,
eskualdeko dendak bizkortu
eta erosketak merkeago egin

abokatuak aholkularitzak akademiak akutxilladoreak akupunturistak al
baiteroak alderdi politikoak aldizkariak altzariak anbulantziak antzerk
taldeak argazkidendak argitaratzaileak arkitektoak armadendak
aroztegiak arrain hazkuntza arrendak artisautza ase
guruak atearak aterpeak atzerrikoak atzerrikoak bakailuak banke
txeak bazarrak beherak beherak beherak beherak beherak beherak
grabaketak bidegurutzeak bidegurutzeak bidegurutzeak bidegurutzeak
dantzalekuak deialdekoak deskonjuntzioak deskonjuntzioak deskonjuntzioak
dustrialak drogerak elektragarriak elektragarriak elektragarriak elektragarriak
balajeak eraikuntza erizainak erlijioak erlijioak erlijioak erlijioak
dentziak erretegiak eskabazioak eskabazioak eskabazioak eskabazioak
kaltegiak farmaziak ferreteriak ferreteriak ferreteriak ferreteriak
funerariak garabiak garbiketarak garbiketarak garbiketarak garbiketarak
gasolindegia geologoak geologoak geologoak geologoak geologoak
tza gruak harategiak harrobiak harrobiak harrobiak harrobiak harrobiak
igeltseroak ikastetxeak ikastetxeak ikastetxeak ikastetxeak ikastetxeak
formatika ingeniariak inmoibildurak inmoibildurak inmoibildurak inmoibildurak
janariak jantzidenda jatetxeak jostunak kafetegiak kalefakzioa kanpale
kuak kioldendakkooperatibek kristaldegia lan bertikalak landareak
lentzeriak liburudenda loreak loreak loreak loreak loreak loreak
moldegiak masaiak medikuak medikuak medikuak medikuak medikuak
toak museoak musikariak nekazaritza nekazaritza nekazaritza nekazaritza
laskoak oinetakoak okindek okindek okindek okindek okindek okindek
ostatuak papertegiak pentsetatik pentsetatik pentsetatik pentsetatik
legoak prentsa publizitatea publikitate publikitate publikitate publikitate
tuak sonorizazioa suhiltzailerak suhiltzailerak suhiltzailerak suhiltzailerak
rioak taxiak telebistak tindategiak toloak turismo bulegoak turismo etxe
ak txatarrak udalak zahar etxeak zalditegiak zapatadendak zeramikak ze
rrategiak zur biltegiak zurgindegiak ...



ttipi-ttapa^{ren}
Telefono gidan

**Badakizu zenbat balio duen
zure anuntzioa
ttipi-ttapa**^{ren}
Telefono Gidan sartzeak



Inguru honetako etxe guzti-guztietan sartuko den Telefono Gidan Ofiziale, saltoki eta lantegi guzti-guztiekin batera agertzeko Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatua Urte osoan eta momentu guztietan zure bezeroak kontsultatzeko erraza Zure iragarkia sartzeko aukera eta tarifa desberdinak dituen Gidan

...eskatu informazioa
948 63 54 58

e g i t a r a u a

apirilak 08 ostirala

"EL SEÑOR RAMON"

00:00

apirilak 15 ostirala

"BANDELPALO"

00:00

apirilak 22 ostirala

"POTOKA"

00:00

apirilak 29 ostirala

"LOS MOÑAS"

00:00

apirilak 09 larunbata

"DISKOTEKA"

00:00

apirilak 16 larunbata

"DISKOTEKA"

00:00

apirilak 23 larunbata

KONTRAKALEA
EKI NTZA

23:00

10€ + kontsumizioa

apirilak 30 larunbata

urgabe

00:00

8€ + kontsumizioa

Cuba 

ZOZKETA

Bi pertsonendako
Kubarako bidala

Txartelak apirilako sarrerakin batea
banaluko dira.

Zozketa apirilaren 30an egingo da.

Luz
a i t z o n d o

2:00ak arte sarrera dohainik. Aintzinet 8€ + kontsumizioa
Entrada libre hasta las 2:00. En adelante 8€ + consumo

Ostiralera sarrera dohainik
Viernes entrada libre

Elizondo (Nafarroa)

www.luzelizondo.com

thegraphicartscommittee

BAZTAN

Santxotenarekin egin den akordioa «iruzurra» dela salatu du UPNk

Lekarozko kolegioaren aferan «transparentzia» falta dela dio

ttipi-ttapa

Baztango Udalaren eta Xabier Santxotena-ren artean sinatutako hitzamena «iruzurra» dela uste du UPNko udal taldeak. Horretaz gain, «hemarentzat guziz kaltegarria, nahasia eta falsua» dela diote UPNko zinegotziek, onuradun bakarra artista berri izanaren delakoan. Lekarozko Kolegioa erosteko egiten ari diren gestioak ere salatu zituzten prentsaurrekoan Begoña Sanzberro, Isabel Bidart eta Jose Antonio Bergara zinegotziek eta «prestatzen ari diren pilotazo urbanistikoa zeinen mesederako izan den» galdegin zuten.

UPNko zinegotziek adierazitakoaren arabera, Xabier Santxotena eskulturgileari kalitate-botoa eta, ondorioz, erabakitze ahalmena ematen zaio balzordenan. «Lehenengo EAko zinegotziek hasi eta oraingoek akitu dute bidagabekeria gauzatu da eta baztandar guzien zergen bitartez ordeindu-



Argazkiak, Oñoko.

Antxitoneako paleta-goma txapelketen finalak

Elizondoko Antxitonea trinketeko paleta-goma txapelketen finalak San Jose egunez erabaki ziren. Finalak ezin estuagoak izan ziren. Bigarren mailakoan, Agustín eta Migel Angel Mitxelena anaiek 40-39 irabazi zieten Txema Garaikoetxea eta Ritxard Alzugureneri. Lehen mailakoan ere, 39-39 berdindu ondotik, hondar tantua Manuel Goñik eta Mikel Garbalenak egin zuten, Rafa Iraola eta Kati Bailoneri irabaziz.

ko da, partikular baten benefizio bakarrerako» orregionalisten ustez.

Lekarozko kolegioari dagokionez, «transparentzia falta» izan do-

la salatu du Begoña Sanzberrok: «Lotsamangarria da galdera aunitz uzten dituen aferra bati buruz prentsa- bidez erreferatu behar izate».

UPNko zinegotziek, herriko bertze aferak moldatzen ez diren bitartean ez omen dute Lekarozko kolegioan buruz aukera bakar bat ere baloratuko.

FLASH

Iruritako Legarrea baserriko bidea

Balleko Udalak 10.225 euroko inbertsioa eginen du Iruritako Legarrea baserri- bidea doan bide moldatzeko. Bizilagun eta erabiltzaileek bere arrenkura agertu zuten, bidearen egoera kaxkarra zela-eta. Lanak Mariezkurrena erakuntza enpresak egingen ditu.

Irurita-Eugi bideko azindak

Irurita eta Eugi arteko NA-174 errepidean azindak libre dabilzaila seinalizatzeko eskaria egin dio Balleko Udalak Nafarroako Gobernu-ko Herri-Departamentuari.

Domingo Borda arizkundarra auzolanean ari zela hil zen

Ortzegun Saindu egunean hil zen Domingo Borda Duhalde arizkundarra, Arizkongo Herriko Etxeko teilatuan auzolanean ari zela erori ondotik. Arizkongo Iñxusikoborda bizi zen Domingo, ama eta anal batekin. Arizkundarrek Herriko Etxean auzolanean segitzen dute, «Domingorentzat omenaldirik onena izan den delako».

Udaberriko Feria

Gan den ortzirean, apirilaren 1ean, egin zen Udaberriko Feria Elizondoko Balleko Udalak, Berizko Partzuego Turistikokoaren eta Elizondoko herriaren laguntzaz antolatuta. Hainbat eskulangileren produktuak ikusi, probatu eta erosteko aukeraz gain, VII. Aharri-Lehiaketa egin zen.

ANTXITONEA
Trinketa

Jatebasa • Ostalua
Hotela • Trinketa

Mesta Berzelak

948 581 807
948 581 853

Herriko Iratze Larrea • ELIZONDO

construcciones
MORTALENA
ANAIK

Paularena, 29 - 2A ELIZONDO
948 580385 / 948 581473
627 400520 / 617 716488

BAZTAN

Jorge Oteiza Museo Etnografikoaren bigarren urteurreneko ospakizunak hasi dira

Hamahiru ikasle eta bi irakasle izan dira Lleidako Ferian

ttipi-ttapa

Elizondoko Jorge Oteiza Museo Etnografikoak zenbait ekitaldi berezi antolatu ditu apirilaren 8an izanen den Jorge Oteiza artistaren heriotzaren bigarren urtemugagoratzeko eta apirilaren 14an izanen den museoaren irekierraren bigarren urteurrena ospatzeko.

Gan den ortziralean, José Javier Azanza historia katedradunak Baztango emigrazioa eta arkitekturari buruzko solasaldia eskaini zuen. Ortzirale honetan, apirilak 8, Juaines Paul Arzak historia irakasleak «Sorginkeriarren gezurra» solasaldia eskainiko du Puriosenean 20.00etan. Apirilaren 13an, Baztan

nen alde lan egin duten pertsonaiei buruzko argazki-galeria irekiko da. Lehendabizikoa, Juanito Eraso, Elizondoko korralaren sortzailea izanen da. Egun berean, Josu Cabodevillak Solalarko trikuharriari buruz egindako lana eta gai berari buruz Begoña Durrutik egin duen haurrendako komikia ezagutzera emanen dira.

Merkataritza gune berria Arraiozen

Balleko Udalak kalifikazio berria eman dio Arraiozko Nazta inguruan dagoen Gillermobelai zelaia. 48.644 metro koadro dituen belagia abeltzaintza erabilerarako kalifikazioa



LIJITZAKO ARGAZKIA

Elizondoko Lanbide Eskolako ikasleak Lleidan

Lekaroz-Elizondo BHIko Administrazioa eta Finantzetako Goi Heziketa zikloa ikasten diharduten eskualdeko 13 ikasleek eta bi irakasleek Lleidan ospatu den VI. Nazioarteko enpresa simulatuen bosgarren azokan parte hartu dute martxoaren 10 eta 11n. Elizondoko lanbide eskolako ikasleak bi urtez behin antolatzen den azoka honetara joaten diren hirugarren aldia da, izan ere, 2000. urteaz geroztik bait dago martxan Baztan Likoreak SAS enpresa simulatua. Enpresa simulatu honen helburua ezagupen teorikoak praktikan eramatea izaki, ikasleek enpresaren kudeaketa administratiboa egiten dute. Horrela, ikasleak ikasketak akitzen dituztenerako erabat prest egoten dira eskualdeko edozein enpresa edo erakundetako administrazio lanpostuetan aritzeko. Gainera, aurtengoan Lleidako nazioarteko enpresa simulatuen azokan produktuen aurkezpena ere egin dute. Azoka honetara enpresa simulatuak eskaini izan dituen likoreez gain, laster katalogoan sartzeko asmoa duten txokolata ere eraman dute dastagai eta ondorioz, pozik agertu dira lortutako salmentekin. "Negozio bidai" hau gauzatu ahal izateko Nafarroako Hezkuntza Departamentuak eta Lekaroz-Elizondo BHIko guraso elkarteak dirulaguntza eman du, eta bertalalde, azokako standean erakusketak eta dastaketarako izan diren produktuak Arizkungo Licores Baztan eta Elizondoko Malkorra gozotegiek eman dituzte.

zuen eta hasiera batez onartu den kalifikazio berraren arabera, zerbitzuetarako bideratuko da. Inguru horretan 50 lanpostu sortuko omen dituen merkataritza gunea ezartzeko asmoa

du Urtelorelkarateak, supermerkatua, galeria komertziala eta gasolindegiarekin. Urtelorek egindako bideragarritasun planaren arabera, Baztan, Bertizarana eta Malerrekako 12.000 bi-

zilagunek erabiliko luke merkataritza gune berria. Lehen urtean 2,78 milioi euroko negozio-bolumena izanen luke eta bostz urteren buruan 9,6 milioi euro ailegatuko litzateke.

MENDI
ostatuak

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

MENDIALDE
Jatetxea

AMAIUR • 948453060



Maderas GOMEN

Zaldubia Industrialdea
Tel: 948 580 645 - IRURITA

Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak

Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...

Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...

Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Carlos
Garañakuzen
Elxenike

abokatuak

948 551 483
948 580 433
Herriko kalea, 12
Arizkungo 389
ELBETE

SENPERE

Idek Senpereri elkarteak sortu da herriaren geroaz eta garapenaz gogoetatzeko

Herriko Etxearen deliberazio bat "erdi-autonomista" dela dio Errepublikako komisarioak

Franek DOLOSOR

Herriaren haunditzeak kezka sortzen ditu herritar batzuen artean. Otsailean, "Idek Senpereri" elkarteak sortu zen herriaren geroaz gogoetak egiteko. Talde honek ez du neholako lotura politikorik eta baikorki lan egin nahi du zabaldu behar diren bideetatik mintzatzuz konparazione. Talde beraiek ekarpenak egin nahi dizkio Herriko Etxeari. Denbora berean zorbait galdere baditu ez baita argi zordako 12 metra-ko zabalera behar den ibarun inguruetan eginen diren bide berrietan. Auzokoen ustez, saihesbide bat baino haundiagoa izan ditaike bidea eta geroan kamunen pasabidea bilakaditake. Baionarat buruz galeko saihesbide bat egitea galdetzen du elkarteak. Gisa berean, nahi luke karrika nagusia eta Lizardia arteko bideak hobetuak izan daitezkeen oinezkoentzat eta txirindularientzat.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NEVILLE

Martxoaren 13an ospatu zen Amorroin Kofradiaren eguna. Talde hori lanean ari da INRA erakundearekin eta Baigorriko amorroin hazle batekin arrain hunen promozioa eta komertzializatzea erretzeko Euskal Herri osoan.

Elkarteak espero du galdere hauek kontuan hartuko direla Herriko Etxeak ondoko urteetan egingen dituen proiektuetan.

Deliberazio «erdi-autonomistak»

Paueko auzitegi administratiboak Iparraldeko hogoita bortz Herriko Etxek hautetsi departamenduzaleen elkartearen alde bozkatu zuten laguntza kentzea galdetu du berriki. Senpererako herriak 150 euro eman zizkion elkarte huni. Paueko errepublikako komisarioaren ustez, deliberazioak ken-

du behar dira "erdi-autonomistak" direlakoan. Iparraldeko hautetsiek gogoratu dute euskal departamendu bat Frantziaren barnean aldarrikatzen dutela.

Auzitegiaren epaia apirilaren erditsuan jakinen da. Euskal auzapezak ez dute baztertzeko helegitea presentatzea. Auzia prefetek eman duen salaketa baten ondotik egiten ari da bere ustez herriko etxeek ezin baitituzte lagundu herriko mugetatik kanpoko elkarteak.

Olerki Egunak Oxtikenean

Hatsa Elkarteak antolatutako Poesia Egunak bi hitzordu izan ditu aurten. Martxoaren 30ean Senpererako eta Donibane Lohizuneko ikasleak bildu ziren, taldean edo bakarka idatzi olerkiak elkarren artean partekatzeko. Apirilaren 3an nagusien txanda izan zen eta Euskal Herri osoko olerkiak bildu ziren Oxtikenean, olerkiak irakurri, aditu eta elkarrekin bazkaltzeko.

Landibar EGUNERO IREKIA
ZENTRO KOMERTZIALA

300m² periferiko merkaderik ezagunenean, usain onak, kosmetikoak...
• Euskal Herriko preziorik hobereak

Tel: (0034) 949 598 400 - URDAZUBI

ttipi
ttapa

☎ (0034) 948635458

HERRIKO ETXEO EDINTEGIA

CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIZAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL. 05592542519

SARA

Eskual Herriko Idazleen Biltzarra Bazko Astelehenarekin iragan da polikiroldegian

Ikastolako burasoek «Saran Olhain» aldizkaria plazaratu zuten

Laetitia, Sandrine eta Krispin

Urte guziz bezala Bazko astelehenerarekin iragan da Eskual Herriko XXII. idazleen biltzarra. Gutxi gora behera mila pertsona ibili dira egunean zehar. Orotarat ehun eta berrogoi idazle etorri dira beren liburuen saltzeko eta izenpetzeko. Egun osoan haurren xokoa antolatua izan da eta aurten haurrek toki berezia zuten: Sarako eta Inzarriko haurrek lanak aurkeztu dute, "Bat biga hiru" Eskual Kultur Erakundeak abian ezarri "Batekmila" programaren barnean Sarako haurrek Patrice Rouleau idazlearen liburua irakurtu zuten eta egun hartan berarekin elkarretaratu dira.

Liburugintzarena ez ezik, musikaren eta oro har artearen eremu ere bilakatzen ari da Sara. Horregatik, beren lanak aurkeztu dituzten 120 idazleez gain, musika eskaintza oparoa atzeman zitekeen. Horien



Sarako ekitaldia indartzen ari da urterik urte, eta literaturazaleentzat hiltzordu salihestezina da. Aurten hogei eta bi urte bete ditu Euskal Herriko Idazleen Biltzarrek.

artean Ziburuko Unama taldearen lehen diskoa edo Kuitulan Diskoak argitaletxearen eskutik Xalbador eta Iñidol Nafarroa Behereko kantarien azken lana. Kanpoan ezarritako aterpe batean, Daniel Velez argazkilarik pilotaren inguruan egindako erakusketa ikus zitekeen.

Barean, sarreraren ondoan, Gaëlle Merschen margoak ikusteko parada zegoen. Aurtengo edizioan hamabi liburu berri aurkeztu izan dira. Euskarazko sailean harrera berezia ukan du Matsaren Begia eleberririk, Eneko Bidogainek Elkar argitaletxearekin plazaratu duena. Fran-

tsesez idatzitako liburuen artean, Manex Gohenetxe zenak bukatu gabe utzitako Euskal Herriko historiaren bosgarren liburua gutizia berezia piztu du.

Sarako ikastola

Urtero, gero eta gehiago haur sartzeko bada Sarako Ikastola. Ha-

la nola 38 gutienez izanen dira heldu den sartzeko ikastolako burasoek aldizkari bat ateratu dute idazleen biltzarreko egunean, "Saran Olhain" deitzen dena. Aldizkaria lau hilabete guziz ateratuko da, zer den ikastola eta eskuaren egoeraz mintzatuko da, eta Sarako etxe guztietan banatua izanen da.

Ateraldia Atauen

Martxoaren 19an, BKBO Sarako musika taldeak jo zuen Atauen, larunbat arratsuan. Atauneko gazteek komitatuak zituzten Sarako hamar bat gaztejoan ziren, giro onean pasatu zuten.

Kirolak

Sarako errugbi taldeak martxoaren 27an galdu dute (10-27) Campet-en kontra.

Galdu balin badute ere, lehenak gelditzen dira taldean. Erdi finaleko kalifikatuak izan dira.

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Plaza • T. 948 580 582 BILBAO

ZOANSA

SEAT Audi VW SALMENTA

MARKA GUZIEN KONPONKETA

Bilbao, T. Abarloa ind. 3700 LESABA (gurea Sarako)
Tel: 948 628 600 - Fax: 948 628 600

AZKAIN

Herria trabeskatzeko orduko 30 kilometrako muga izanen dute ibilgailuek

Xantal Garat Frantziako errugbi taldean ari da

Angela eta Xamo

Lastertasuna maite dutenek arriskuaren gustua galduko dute Azkaingo herria trabeskatuz aurrerantz. Duela gutxi Herriko Etxeak "30 eskualdeak" muga-tu ditu herri erdiaren inguruan. Horrek erran nahi du autoek zakutasunaren muga orduko 30 km errespetatu beharko dutela. Egia erran, batzuek ez zituzten janeko orduko 50kmak errespetatzen, beraz zaila agertuko zaie gidaritzako lege berriak segitzea.

Hautatuak diren "30 eskualdeak" eskolen inguruan eta herriko ordian atzematen dira. Urtero, gero eta auto gehiagok herriko karrikak mailegatzan dituzte. Zinez, erabaki hori beharrezkoa agertzen zaigu, batez ere gure haurrak babesteko. Eta presatuak direnek jakin behar dute soluzio hau segitzen ahal dutela: aurrerantz, lanerat tenonian arnabatu nahi baldin badute, aski dute pixkat goizeago jeltitzea.

Xantal Garat, frantziako errugbi taldean

Zortzi urte zituelarik hasi zuen errugbia, xiloak taldean, mutikoe-kin. Segitzen zuen "benjamin"-en bigarren urtea arte gure herrian. Miarritzerat gan aintzin nesken helduen taldean jokatzera, hiruga-



Antonia Arriola

Selairu husketa

Hilabetero egiten den bezala, heldu den apirilaren 9an selairu husketa izanen da herriko plazan.

rrren zatiketari. Hortik, Herriko nazional ekipan sartu zen, beste hiru urte egiteko, lehen zatiketari.

2003ko irailean bere izena emaiten zion Gennevilliers taldeari, Parisen aldean, bere lantokitik hurbiltzeko. Urtean zehar, Frantziako taldearen hautaketa ikas-

taldietan parte hartzen du. Frantziako ekipan edo "France A" erre-serba aritzeko. 2004ko urtean, hiru partida egin ditu France A taldean. Aurten, hautaketa ikas-taldeak egin eta, beste bi neskekin ordezkari izateko hartua, izan da. Neska bat kolpatua izan denez, 6 Nazioetako

Txapelketan aritu da, lehen partidari, 5 minutu bakarrik aritu da Eskoziaren kontra, 15 minutu Ingalaterraren kontra, 40 minutu Galesen kontra, matxaren kontra Espainiaren kontra, eta partidaren osoa Irlandaren kontra. "Grand Chelem" deituriko txapelketa irabazi dute.

Hastapenean, fisikoki oso zaila atzeman du bainan taldean ongi integratu da nahiz eta maila oso gora izan.

Esperientzia biziki baikorra izan da, ekipan xupitx deituriko Xantalendako.

Neska korrika igandean

